



LABURPENA: Egileak sorkuntzaren erroak aztertzen ditu, espazio ederren sormena, kirola, edo arkitektura, norberaren mugetatik kanpo irteteko lanabes egokiak aitortuz. Horrela, sormen-prozesuaren arazoak, norberaren gorputzaz haragoko sublimazio eta bikaintasunaren etengabeko bilaketaren azterketa bat egiten du.

GAKO-HITZAK: hutsa, betea, surfa, arkitektura, kirola

ABSTRACT: The author explores creativity roots, discovering tools to exceed oneself limits in order to create beautiful sport spaces or architectures. Thus, the text investigates the eternal search for sublimation beyond oneself body that is involved in the creation process.

KEYWORDS: emptyness, fullness, surf, architecture, sport

Oteizak inork baino hobeto deskribatzen ditu surfariak olatu perfektuaren bila milaka kilometro zeharkatzeko dituen arazoak. Zaila da azaltzea batek tuboan sentitzen duena eta hura aurkitzeak hainbatetan eskatzen duen esfortzua. Baina Oteizak aipatzen duen hutsarekin zerikusi handia du... Bat desagertu egiten da, ez du ezertan pentsatzen.

Kepa Acero (1)

Mihaly Csikszentmihalyi-k, zoriona eta gailurreko esperientzien inguruan bilaka zebilela, *flow* kontzeptuarekin, eta sententzioarekin, topo egin zuen (*fluir* gaztelaniaz, jarioa, agian, euskaraz) (2). Jarioa honelaxe definitu zuen: egiten ari garen horretan guztiz harrapatuta egotea, buruak eta gorputzak elkarrekin esfortzurik gabe lan egitean eta gozatzean oinarrituta. Bederatzi osagai azpimarratu zituen bertan: desafio eta iaioitasunen arteko oreka; akzio eta arretaren arteko fusioa; helburu argiak edota helburuak argi izatea; zalantzagarritasunik gabeko *feedbacka* jasotzea; ezarrita dugun egitekoan zentratzea; kontrol-sententzioa; norbanako izatearen kontzientziaren galera; denboraren igarotzearen eraldaketa; eta, esperientzia autotelikoa (greziera-tik, *auto*: norbera; eta *telos*: helburu) izatea.

Aipatutako osagaiak kontuan izanda, kirolak aparteko aukera eskaintzen du jarioa iristeko (3); batez ere esperientzia mugatua delako eta buruaz gain gorputza bera ere ekinean dugulako. Hau konplexutasun handiago baten bidez norberaren hazkundera lortzeko espazio bat da; zure kirolean jarioan mantendu nahi baduzu, zure iaioitasunak areagotu beharko dituzu.

Kirolak hazkunderako zabaltzen digun espazio bera irekitzen digu ere arkitekturak, espazio bera, bai. Gure esku dago espazioa nola bete, zertan bete, edo hutsez bete. Aspaldi hartan, kristautasun zein islamaren hasierako garaietan, teologoek arkitekturaren defentsa egin zuten: eraikin ederrek moralki zein espiritualki perfektionatzeko gaitasuna zutela baieztatzen zuten, kirolarien gisara Olinpo mendia konkistatuz.

(1) *De olas y de sueños. Kepa Acerori elkarrizketa* (2012). ZAZPIKA GARAREN aldizkaria 694 zk.

(2) Csikszentmihalyi, M. (1990): *Flow: The Psychology of Optimal Experience*. Harper Perennial, New York.

(3) Jackson, S. A.: Csikszentmihalyi, M. (2002): *Flow in Sports. The keys to optimal experiences and performances*. Human Kinetics, Champaign.

Edertzat ditugun lekuak haien desioen inguruan galdeketa egokiro burutzeko umiltasuna eta alaitasun-pertzepzio iragankorrak proiektu logikoetara itzultzeko iaioitasuna duten arkitekto azpimarragarrien lana dira; inkontzienteki genituen beharrak asetzen dituzten inguruak sortzeko gaitasuna eskaintzen dien konbinazioa (4).

Kirolean, arkitekturan, bizitzan, zeuk egin dezakezula uste izateak baldintzatuko du zure esperientzia zure gaitasun errealean gaitetik. Zorionekoak gu, muga hauek gainditzeko asmo irmoa erakusten digutenak izan badirelako, izan bagarelako.

Sortzeko sortuak gara; nekeza da badenaz gu asetzera. Kandinskiren hitzetan (5) abian jartzen gaituen barne-beharra hiru arazo mistikotatik sortzen da eta hiru behar mistikoz osatua da:

- 1- Artista orok, sortzaile gisan, berezko duena adierazi behar du (pertsonalitate elementua).
- 2- Artista orok, bere garaiko seme gisan, garai horri berezko zaiona adierazi behar du (estilo elementua).
- 3- Artista orok, artearen zerbitzari gisan, arteari orokorrean berezko zaiona adierazi behar du (elementu puru eta betierekiko artistikoa... ez du ez espazioa ez denbora ezagutzen)


Espazioa eta denbora ezagutzen ez dituenaren zerbitzari, espazio eta denboran markaz marka hazten, berezko zaiguna adierazteko mila bidetan zehar.

Bila gabiltza, etengabe bila; bide estu urrunetan bila, hiribide naharo markatuetan bila. Kepa Indonesia, Txile, Namibia, Alaska, Peru eta Patagonian bila; Alberto Himalaiako harri eta izotzeko gailur zurietan bila; batzuk igerian, bizikletan edo korrika bila; besteak igerian, bizikletan eta korrika bila.

Gu, batzuk, espazio eraikiaren esperimentazioan bila; olatu ederrena, gailur gorena edo marka urrunena balitz bezala... asetzen eta hazten, hazten eta asetzen; bila gabiltza, etengabe bila.

(4) De Botton, A. (2006): *The Architecture of Happiness*. Pantheon, Londres.

(5) Kandinski, V. (1911): *Über das Geistige in der Kunst. Insbesondere in der Malerei*. R. Piper & Co., Munich.



Egilea: Inhar Agirrezabal

Tresna ezberdinak eskuan hartuta, hizkuntza ezberdinak ahoan astinduz, bat eta bakarra dugu helburua. Eta horretan ematen dugu bizia. Bila jarduteko puntako tresnak erabiltzen ikasten bizia; behin hura menderatuta atera berri den azken modelo berriari zeharka begiratuko diogu zabaltzen den hurrengo bidea seinatzen digula sinetsita, bila jarrai dezagun. Bizia bila, bizi bila.

Bilatzeari uztean aurkituko dugula ahaztu zaigu; ahaztu ere bilatzekorik ez dela.

Oiartzungo cromlech multzoan lanean zebilela Barandiaranek, harrizko zirkulu misteriotsuen harira, bilaketaren emaitza

negatiboa izan da, ez da ezer aurkitu idatzi zuen. Oteizaren-tzat, ordea, hauxe izan zen bilaketaren emaitza positiboa: aurkitu dugu Ezerez (6).

Eta zu, zeren bila abiatzeko ari zara janzten korrika egiteko zapatilak, hartu bizikleta edota igerilekurako txanoa? Eta zu, zeren bila abiatzen zara arkatza eskuan hartuta orri zurian barna edota bizipenez gainezka daramazun motxilaz arkitek-tura deitzen dioten espazio eraiki horietan zehar?

Beti hurrengo geltokian itxarongo zaitugu.

° Inhar Agirrezabal arkitektoa da.

(6) Oteiza, J. (1963): Quousque tandem...! Auñamendi, Donostia.



Graduondokoak euskaraz UPV/EHU

2012-13 ikasturtea

Master ofizialak:

- Euskal nazionalismoa XXI. mendean
- Hizkuntzalaritza eta euskal filologia
- Hizkuntzaren azterketa eta prozesamendua
- Multimedia komunikazioa. EHU-EITB unibertsitate-masterra
- DBHko, Batxilergoko, LHko eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza

Unibertsitateko espezialista tituluak (berezko tituluak):

- Euskal Herriko pentsamendu kritikoa XX.-XXI. mendeetan
- Hizkuntza-plangintza
- Itzulpen-gintza eta teknologia
- Software librea: sistema, sarea, segurtasuna eta web-aplikazioak
- Neuroerrehabilitazioa
- Hondakinen kudeaketa eta tratamenduak

Informazio gehiago:

<http://www.ikasketak.ehu.es>

Master ofizialak

Berezko ikasketak

**AMETS BATEN
OINORDEKO GARA**
UNIVERSIDAD VASCA EUZKO IRAKASTOLA NAGUSIA



www.ehu.es/ametsbatenoiordeko gara

